

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat baliabide beharko ditugu. Eta baliabide hauek mota desberdinetan sailka ditzakegu:

- **Baliabide fisikoak:**
 - ◆ Lokala beharko dugu, gure instalakuntza Erreterian, avenida Navarran egongo da. Bertan, gure produktuak prestatu, antolatu eta paketatuko ditugu gero denda ezberdinetan saltzeko. Barruan, bulegoak egongo dira, jasotzen ditugun dei, zalantza eta iradokizun guztiei erantzuteko.
 - ◆ Web horri bat sortuko dugunez, interneten bidez zenbait ekintza egin beharko ditugu, beraz, router bat beharko dugu.
 - ◆ Gure lokalean altzari mota asko beharko ditugu, adibidez, mailak, aulkiak, mostradorea, kutxa erregistratzailea, etab.
 - ◆ Gaur egungo egoeraren ondorioz, Covid-19atik babesteko beharrezkoak diren gauza guztiak eukiko ditugu: eskularruak, gel desinfektantea, alkohola, etab.

- **Baliabide intelektualak:** Gure produktuari patente bat sortuko diogu, horrela produktu honen fabrikazioa gure eskuetan egongo da beti. Gure produktua denda ezberdinetan saltzeko, beste enpresa batzuen laguntza edo kolaborazioa beharko dugu. Horretarako, Amazon, Media Markt, ileapandegi ugariak, Carrefour eta Alcampo enpresekin hitz egin dugu. Horrela, puntu hauetan erraztasun handiz lortzeko aukera egongo da. Ere, webgune bat sortzea erabaki dugu, teknologia jakintza gutxi ditugunez, beste enpresa baten laguntzaz baliatu gara sortzeko. Webgunearen kontrol on bat izateko, informatika formakuntza jasoko dugu gerta daitekeen arazoak ekiditeko.

- **Giza baliabideak:** Ez dugu langilerik kontratatuko, enpresa askokin elkartu garenez, lan guztia oso banatuta gelditu da. Gure taldea 5 langilez osatuta dago, eta guk arduratuko gara bulegoetan lan egiteaz eta egin behar diren beste lan guztiak egiteaz. Batzuk salmenta eramango dute, beste batzuk telefonoa hartzeaz eta posta elektronikoak erantzuteaz, beste batzuk publizitateaz...eb. Hala ere, udan teknologiari buruzko kurtso bat egingo dugu lehen esan dudan bezela, horrela lan hauetaz arduratzeko kualifikatuak egongo gara.

- **Finantza baliabideak:** Proiektua martxan jartzeko 20.000 euroko kreditu bat eskatuko diogu bankuari. Diru hori, denborarekin itzuliko dugu ateratzen ditugun irabazien zati batekin. Gutxi gora behera, bakoitzak 4.000 euroko inbertsioa egingo du. 20.000 euro en zati batekin, zehazki 6.000 eurokin, enpresaren lehorgailuak, lokala, lehengailak, erremintak, etab. ordainduko ditugu.